

\* \* \*

Mikel Gorrotxategi Nieto, Licenciado en Filología Vasca y Secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,

## CERTIFICA:

Que el nombre euskérico de la Junta Administrativa de *Elburgo* de dicho municipio, en su forma euskérica académica actual es: Burgelu. También cabe señalar que el gentilicio de dicho pueblo es *burgeluar*.

Que *Burgelu* es la forma documentada de dicho topónimo en el año de 1025, como aparece en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada igualmente por esta Real Academia.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a treinta de enero de mil novecientos noventa y ocho.

H. Knörr Borràs,  
presidente de la Comisión  
de Onomástica

Mikel Gorrotxategi,  
secretario de la Comisión  
de Onomástica

\* \* \*

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziatua, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkari denak, ondoko

## DIKTAMEN HAU EMATEN DU:

Elkargo Akademiko honek prestatuturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, bere 273 zenbakia daraman izena, eta orain arte Administrazioaren erabilera ofizialean Garay deitua, euskal aldaera ofizialean Garai dela. Herritarren izena, ordea, garaitar.

Euskal literatura eta tradizioan herri izen hau behin baino gehiagotan agertzen da, hala nola, heraldikan "Gordeago dago herria Garaian altuan"; Resurreccion Maria de Azkue Euskaltzaindiko sortzaile eta lehen euskaltzainburu izan zenaren *Cancionero Popular Vasco* kantategian: "Garaiko plazan ote lo-

ran, Ermuan Asentzioa”; Herri kantetan: “Durangon tronpia, Garaian danbolina, Berrizen dantzia...”.

Garai izeneko toponimoak Euskal Herriko eskualde guztietan, hasi Enkartzatzioetatik Zuberoaraino auzo, etxe eta leku izen ugari daude. Errioxako Ojastro herrian “cuadrilla” edo barruti baten izena Garai zen eta Argentinako departamendu eta ibai batena ere. Udal izen bakarra, ordea, berau da, Durangoko merinaldean.

Eta hala adierazteko eta bertako Udaltzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon, mila berderatziehun eta laurogeita hamazortzigarreneko otsailaren hogeita bostean.

H. Knörr,  
Onomastika batzordeburua

Mikel Gorrotxategi,  
Onomastika batzordeko idazkaria

\* \* \*

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziatua eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkari denak, ondoko

#### DIKTAMEN HAU EMATEN DU:

Elkargo akademiko honek prestaturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, bere 143 zenbakia daraman izena, eta orain arte Administrazioaren erabilera ofizialean *Bérriz* deitua, euskal aldaera ofizialean Berriz dela. Bestalde, herritarren gentilizioa berriztar da.

Berriz euskal toponimoa dela eta ondorioz, Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legearen 10. artikulua arabera, leku-izenak jatorrizko hizkuntzaren idazkeraz idatzi behar direla, kasu honetan Berriz, euskaraz, Erret Akademia honek emandako arauen arabera ez baita euskaraz tilderik idatzi behar.

Eta hala adierazteko eta bertako Udaltzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon mila bederatziehun eta laurogeita hamazortzigarreneko martxoaren hogeita bostean.

H. Knörr,  
Onomastika batzordeburua

Mikel Gorrotxategi,  
Onomastika batzordeko idazkaria